

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### **Araiako Andra Mari kaleko urbanizazioa eraberritzeko obrak lizitatzea**

Araiako Andra Mari kaleko urbanizazioa eraberritzeko obrak kontratatzekeo administrazio klausula berezien eta baldintza teknikoaren agiriak onartu ondoren, jendaurrean jartzen dira zortzi egun baliodunez Asparreneko Udalaren erregistro orokorrean (Herriko Enparantza 1, Araia), interesdunek azter ditzaten, eta, hala badagokio, egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten.

Aldi berean, kontratu horren lizitaziorako deia egiten da. Dena den, lizitazio hori atzeratu egingo da, erreklamaziorik aurkezten bada.

1. - Erakunde esleitzaila:

a) Erakundea: Asparreneko Udala.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

1. Bulegoa: Asparreneko Udala.

2. Helbidea: Herriko Enparantza,1.

3. Herria eta posta kodea: 01250 Araia.

4. Telefonoa: 945-304006.

5. Faxe: 945-314150

6. Posta elektronikoa: aasparrena.inaki@ayto.araba.eus

7. Kontratatzailearen profilaren helbidea Interneten: [www.asparrena.net](http://www.asparrena.net)

Lizitatuzaileek pleguen eta proiektu teknikoaren CD formatuko kopia bat eskuragarri izango dute Sistemas Arco kopia dendan (San Antonio kalea 16, Gasteiz).

2. - Kontratuaren xedea:

a) Azalpena eta xedea: Araiako Andra Mari kaleko urbanizazioa eraberritzeko obrak egitea, Molli SLk idatzitako proiektu teknikoaren arabera.

b) Gauzatzeko epea: 6 hilabete, gehienez ere.

c) Luzapena: ez.

d) Gauzatzeko lekua: Araia.

e) CPV: 45210000

3. - Izapidetza eta prozedura:

a) Izapidetza: arrunta.

b) Prozedura: irekia eta esleitzeko hainbat irizpide; haiz zuzen ere, hauexek:

A. Automatikoki zenbatu daitezkeen irizpideak handienetik txikienera puntuatuko dira:

— Proposamenaren balorazio ekonomikoa eta haren justifikazio zuzena, 60 puntu eskaintzarik onenari; hortik gorako gainerako eskaintzei era proportzionalean eta handienetik txikienera emango zaizkie puntuak, formula hau aplikatuz:

$$\frac{\text{baloratzen den eskaintza} - \text{eskaintzarik onena} \times 60}{\text{eskaintzarik onena}} = \text{diferentziala}$$

$$60 - \text{diferentziala} = \text{Baloratzen den eskaintzak jasoko dituen puntuak}$$

– Obren berme epea luzatzea: 5 puntu (1 puntu, gutxienez eskaini beharreko bi urteez gain eskaintzen den beste urte bakoitzeko).

– Lanak egiteko, lanen hasiera egunean Asparrenean erroldatuta dauden langabetuak kontratatzea: 10 puntu, gehienez ere. (4 puntu obrak gauzatzeko aldi osoan lanaldi osoz kontratatutako langabetu bakoitzeko, eta 2 puntu obrak gauzatzeko aldi osoan lanaldi erdiz kontratatutako langabetu bakoitzeko).

B. Balio judizio baten arabera neurtzen diren irizpideak:

– Memoria teknikoak: 25 puntu, gehienez ere. Hona hemen xehakapena:

Eraikuntza prozesuaren azalpenaren balorazioa: gehienez, 15 puntu.

Langileen eta makinaren zerrendaren balorazioa: gehienez, 5 puntu.

Obra propioaren eta azpikontratatuaren balorazioa: gehienez, 5 puntu.

4. - Litzitazioaren oinarritzko aurrekontua: 663.332,97 euro gehi BEZa (139.299,92 euro). Guztira: 802.632,89 euro.

5. - Eskatutako bermea: ez da behin-behineko fidantzarik eskatzen. Behin betiko bermea esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 izango da (BEZa aparte).

6. - Enpresariaren berariazko betekizunak.

Beharrezkoa da enpresen sailkapen hau izatea: E taldea (obra hidraulikoak), 1A azpitaldea, eta G taldea (bideak eta pistak), 6 azpitaldea, d kategoria.

Administrazio baldintza berezien agirian jasotzen dira ekonomia eta finantza kaudimenaren eta gaitasun teknikoaren betekizunak.

7. - Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 26 egun baliodun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aurkezteko modua: paperean.

c) Tokia: Asparreneko Udalaren erregistro orokorrean.

d) Helbidea: Herriko Enparantza, 1.

e) Herria eta posta kodea: 01250 Araia.

f) Helbide elektronikoa: aasparrena.inaki@ayto.araba.eus.

8. - Eskaintzak irekitzea: B gutun azala eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren egun balioduneko 10:00etan irekiko da ekitaldi publikoan. Egun hori larunbata bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da. Lizitazile guztiei behar bezala jakinaraziko zaien eta kontratatzailearen profilean iragarriko den ekitaldi publikoan irekiko da C gutun azala.

9. - Publizitate gastuak: esleipendunak ordainduko ditu, 250 euroko mugarekin.

Araia, 2016ko irailaren 16a

*Alkatea*

*CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ*